

BAKEAREN ARAZOA EUSKALERRIAN

1. Bake errealidadeak gauza asko artzen ditu barruan. Orokorrean, etaure erriaren egoeran. Gure bakearen arazoak, gure arteko istilluak alde asko ditu. Alde orreek zerikusia izan daikée alkarregaz, geiago edo gitxiago. Ez da nire asmua alde guzti orreek aipatzea, eta aztertzea. Ostera, ikuspegi naastu au gogoan dogula, leenengo arazo larria, dana dala, erailketa bortizkeria dogu, eta beste segurtasun kontrako bortxa larriak. Au lotu eta amaitzea ez da bakea, baiña bai bakearen leenengo alderdia, eta bake osoagoa lortzeko leenengo pausua eta baldintza.

Euskalerrian eta gure erritik kanpora askotan eskatu izan jako ETari gelditzeko betiko. Ez dago dudarik Euskalerrriaren geien-geingoaren nai sendo bein-betikoa dala eskakizun ori. Orain arte aurkeztu deutsoezan arrazoi politiko eta etikoak ez dira egitez gai izan leenengo baketze ori lortzeko. Orain arteko ondorioa au izanda be, egoera eroaneziñak berak bultzatzen gaitu saio barriak egitera. Eta andik eta emendik berba egiten jarraitzen dogunez, aurretik emon bear dogu, orain arteko porrotak eta triskantzak ikusita be, ETA gai dala arrazoiak ulertzeko eta erantzukizuna izateko.

2. ETAk gerrea deutso egitez deklaratu Estaduari, Euskalerrriaren askatasuna eta sozialismo bidea eragozten ditualako, itz gitxitan esanda. Sarrakioaren bidez, ez gudari agirikoen neurketaz. Nortzuk dira gerra onetan kontrako gerrariak? Aurretizik ez dago erantzun mugatu zeatzik. Baiña, orokorki, "eurenak" ez diran guztiak izan daitekez. Aren ustez bidea, era

batera zein bestera, eragozten daben guztiak izan daitekez, orain arteko kasuak erakusten deuskuen lez. "Eurenak", leenengo ta bein, ETaren menpean jartzen diranak dira. Ez dago muga jakinik, eta aldian aldian erabagiko da bearbada nortzuk diran etsaiak, aren bidea eragozten dabenak, edo zapaltzailleak edozein modutara lankidetzat artuak.

Gogoeta onetan, leenengo itauna (bakoitza non dagoan ikusteko eta nondik asi bear dogun jakiteko) au izan daiteke: Politika etikarekin identifikatzen da? Politikaz erria, gizartea, naziñoa egituratzea esan nai da. Or badagoz elburuak eta elbideak. Elburuak, gure kasuan, erriaren askatasuna (nai burujabetza) onartua izatea (eta aren izakera sozialista) izan daitekez. Elbideak, orretarako era askotako ekintzak, gaur eguneko alderdiak eta mobimentuak aurkezten dabezanak, esate baterako, eta asmatu daitekezanak. Ori pentsatzean eta gauzatzean, badago etika erizpide etikorik, ala kriterio bakarra politika elburua da, eta, beraz, orretarako bear diran elbideak soillik? Onaren eta txarraren erizpidetzat politika bera bakarrik artzen bada, giza eskubide dan aldetik artzen da ala ez? Giza eskubide dan aldetik artzen ez bada, orduan amaitua da, logikaz, alkarrizketa: bakoitzaren irrikaz eta indarraz jardun bear da aurrerantzen. Obeto esanda, itz egin bearrik be ez dago. Irrika eta indarrak egiteen bidez gauzatzen dira. Indarraren arrazoa baiño ez dago. Zetako? Irrikatzen dana lortzeko (eskubide dimentsioa alde batera itzitakoan).

Ostera, politika elburua giza eskubidetzat artzen bada: ez dago beste giza eskubiderik? Ez dago eskubide personalik? Bizia, askatasuna, segurtasuna, bizitzeko eta giza garapenerako medioak, etabar? Zetako da erri antolamendua (eskubide kolektiboen eraketa) persona bakoitzaren duintasuna eta eskubideak bideratzeko eta gauatzeko ez bada?. Eskubide kolektibok personearen eskubidean oiñarritzen dira. Personea ukatuz ez dago erririk. Eta, gero, erri eraketa ori egiteratu ondoren, zer jazoten da beste eskubide orrectaz, orain persona batzuei (medio uts lez erabilliz) ukatzen jakezan gorengo eskubideetaz?

Logika orretan, beti izango dira edozein medio erabilteko zuri-ketak, beti izan daitekez zapalduak sentitzen diranak. Persona errubakoa edo ezetariko defentsa bakoa kondenatzea eta iltea (beste lorpen batzuk eskuratzeko) or geratzen da, justifikatzen dan eiñean, kontzientzian (pentsakeran eta barne jarreran).

Askatasun bideko eragozpen eta erriaren etsai dirala esaten bada, norberaren politika kontrakoak etsaitzat artzen dira, kondenatuak eta eriotzara emonak. Badakigu emen amaitu eziñeko eztabaida dialektikuak sortu daitekezala, olan nai izan ezkerro. Bidegabeko erasoaren aurkako “zuzenbidezko defentsa” aplikatuko dau bearbada ETAk, guzti orreek euren egiteakaz erria zapaltzen parte diralakoan. Asikeran esandakoa dator barriro gogora: erasoaren alorra mugabakoa da; edonor artu daiteke zapaltzailletzat, kondenatu eta eriotzara emona izan. Jakiña zuzenbidezko defentsaren dotriña klasiko arek ez dauakala emen sartzerik. Dotriña arek bortizkeria, eta “zuzenbidezko defentza” bera, aalik eta geien eta estuen murriztu nai eban ain zuzen. Oraingo ekintza onetan, ostera, medio normaltzat artzen dira artez erailketa eta sarrakioa. Argi izan bear leuke pentsakera eta egikera onek giza konbibentzi ondamera dakarrela beragaz; alkarren kontrako eta amaitu eziñeko erailketa eta gerrea. Beti aurkitu daiteke arrazoitzat zapalketaren bat, biderik errezenez norberaren asmua lortzeko. Orrela, galdu dogu barriro be giza eskubideen bidea. Berbeak indarra justifikatzeko baiño ez dau balio. Errubakoa eta defentsa bakoa erailtea justifikatzeak markatzen dau, logikaz, eskubidearen gainbera osoa.

Baiña ETAk erriaren eskubideak aipatzen ditu eta oneek aldezten ditualakoa da bere ekintzaren agiriko arrazoia. Badago or etika aldetik (gizalege aldetik) izugarri jakuna: zuzenbideari buruzko amaibako arrazoiketa dialektikuak erabilten diran bitartean, besteen biziaz eta eskubideez agintzea. Etika arazoa au da emen, alderaketa barik, garrantzitsuena, or erabagiten da giza izatearen zoria eta. Erri eskubideetaz (eskubide diranez) ezin daiteke berbarik egin etika munduan baiño.

3. Baiña politika gogoeta be egin bear da, etikari lotuta dagoan aldetik. ETak au ikustera eldu bear dau: Bere elbide ekintza bortizkeriakoak bere elburua desegiten dauala. Au ez dot uler-tzen, zuzenean eta lenengo ta bein, soziologi aldetik, nai ta esango dodanak ondorio soziologikoak izan. Izan be, orain arte esan jakon lez, gogorkeria eta erailketa ekintzak errian bertan eta naziño artean borondateak aldendu egiten ditu nazionalismo ideiatik. Nazionalismoa arriskutsu eta zapuzgarri biurtzen da askorentzat. Baiña au esan gura dot orain: Bakoitzaren askatasunaren eta biziaren kontrako gogorkeria orrek, nazionalismoaren beraren kontzientzia illundu illuntzen dauala berez onen aldeko kontzientzi zintzoan be (dana dala gero ondorio soziologikoa). Giza kontzientzia geroago eta geiago doa giza eskubideak barneratzen. Danen eskubideak (orduan dira eskubideak eta). Eskubide kolektiboak personearen eskubideetan sustraitzen dira eta oneen garapen sozialaren alderdiak egiteratzeko dira. Orregaitik, sarrakio-bortizkeria aparteko eraz doa geroago eta nazkagarriago izaten. Au ez da komunikabideen propaganda ondorioa; giza kontzientziaren garapena dogu. Erri-eskubideak giza-legearen garapen lez ikusten dira, arrazoiz. Gizakiaren bizia eta eskubide personalak zapaltzeak eta ezereztutzeak erri-eskubideen oiñarria eta zentzua deusezten ditu berez.

Badago egiaren alderdi bat bidegabeko bortizkeriaz billatzen diran elburuak ez dirala bardiñak esaten danean. Abstraktoki bardiñak izan daitekez. Ez konkretoki: Errubakoaren eta defentsa bakoaren kontrako bortizkeriaz billatzen dan erri-askatasuna ez da benetan askatasuna, eta ez da demokrazia. Errubakoen erailketa eta eraso zuritzen dauan pentsakerak, askatasuna lortuta be, bortizkeria ori justifikatzen jarraitzen dau: or giza duintasunari eta eskubideei buruzko guztiz beste ideia eta jarrera dagoz. Errubakoaren eta defentsa bakoaren eskubideak guretzat ez dira elbide. Eurak dira elburuak. Eta or agertzen da zelako erria eratu eta egiteratu nai dan. Gizaki guztiak dira gure anaiak: giza-ikuspegi onen barruan, au ukatu barik eta au zeazteko, dira errien eraketa politikoak eta sozialak.

ETAk, politikaz eta estrategien ondorioez erabagitzen dauanez, ulertu bear leuke gaur sendotzen doan politika kontzientzi au. Gogorkeria ekintzak nazionalismoaren elburua bera makaltzen dau. Gizakiaren eta demokraziaren kontrako esperimentatzen dan nazionalismoa nazkagarri agertzen da. Nazionalismo konkreto orrek beragaz batera nazionalismo era guztiak bortizkeriagaz identifikatzera daroaz egitez. Ez ditugu emen gogoan identifikatzio au burutzeko irrika bizia daukenak eta orretarako propaganda eta ekintza estrategiak eratzen dituenak. Errealidade bera ikusten saiatzen gara, eta bere indarrez gizartean gauzatzen dauan ondorioa.

Ostera, nazionalismoak (erri-burujabetzaren egiturak lortzeko ekintzak) bere izate demokratikoa, unibersala, eta personen eskubideen defendatzailea erakusten aalegindu bear dau. Nazionalismoarentzat besteak ez dira berez etsaiak. Guztiz bestera: bakean eta bere nortasun osoan bizitzeko erea dauan erria egokiago eta aberasgarriago alkartuko da askatasunez daretariko artuemonetan beste erriakaz. Sarrakioak eta erailketak etsaitu egiten dau nazionalismoa. Ez, leenengo ta bein, besteak egitez etsai biurtzen ditualako; bere burua etsaitzat ikusten daualako baiño.

Orregaitik, bere indarra kanpotiko probokazioan eta errepresioan billatuko baleu, ain zuzen be barne indarra falta jakola erakutsiko leuke. Etsaien probokaziñoari izango leuskio zor bere antzezko bizitasuna. Orrek barne indarraren auleri objektiboa erakusten dau. Nazionalismo konkreto au ez da gauza bere barrutik erria mugitzeko. Bortizkeria ekintzak geroago eta makalago jarten dau berez nazionalismoaren ideia bera.

4. Demokrazia idejara bildu bear gara, beraz, erriaren eskubideetara. Ulergarriago izango da bearbada, eta, batera, arazoaren politika gunea be emen datza. ETAk Estadu espainiarragaz daukala istillua uste dau. Euskalerrriak arazo ori, orokorki eta orain geiago zeaztu barik, badauala diñoenak asko dira Euskalerrrian. Ori da alderdi politiko batzuk izateko arrazoia. Baiña, norekin dauka benetan arazoa ETAk? Euskalerrriak ba-

dau istillua Estaduagaz, erritar askoren eritziz. Baiña ETAk berak azken baten eta benetan Euskalerriaz dau arazoa. Au begitu bear dogu aurrez aurre eta aztertu.

Euskaleria bada gai bere eskubideak zaintzeko eta aldezteko. Badau adiña eta esperientzia, eta aurrean daukaz arrazoiak elburuak eta bideak erabagiteko. Agertu dau eskubide orreek zaintzeko bidea orain zein dan. Leenengo ta bein, asteko, ez deutso ETari erria ordezkatzeko eskubiderik emon. Batera, erailketa eta gogorkeria bidea ez dauala inondik nai agertu dau eten barik. Bakezko, giza eskubide eta demokrazi bidea nai dauala aldarrikatu dau. Bakea, giza-eskubide eta demokrazia ez dira ideia orokorrak eta amaitu eziñeko eztabaidarako gaiak. Errealidade konkretoak dira: Erriak ETari eskatu eta esijidu deutson bakea eta demokrazi bidea, orain eta emen, inor ez iltea da, eta besteen eskubide personalak errespetatzea, erriaren borondatea, geiengoaren borondatea, jakiteko bideak jarraitzea. Ez deutso askatasun abstraktoaz berba egiten, konkretoaz baino: ez il, ez sarrakioz au edo bestea egiten eta pentsaten. inor beartu. Orain eta emen burutzen diran izu-egiteak ditu gogoan. Ori da konkretoa. Emen dago demokrazi eta politika aldetik (ETAk erabilten dituan ideiak eta erreferentziak) istilluaren azken guna. Orain arte ETA adarretatik dabil eta kea zabaltzen bere justifikazioetan. Euskalerraren izenean itz egiten dau, erri orren izenean beronen auteskundeak eta ordezkarien ekintzak aintzat artu barik, euren ordezkari bere baldintzak inposatu naiez. Eta, batez be, Euskalerraren izenean, eriotza eta sarrakioa barreiatuz. Euskalerrak au erakutsi bear deutso ETari: ez dauala erria ordezkatzeko, erriaren kontra jokatzeko dauala, bere ekintza alderdi guztietatik kaltegarri jakola, erriaren izatea bera etikoki eta politikoki desegitera jotzen daualako.

Etxean eta geure artean dogu leenengo konpondu bearreko arazoa. Bearbada oraindiño ez gara danak naiko konturatu. Nai ta gogorkeria bideak zapuztu, asko ETaren eta Estaduaren arteko istilluaren ikusle garala esan daiteke. Euskalerrak bai konpondu bear dau bere arazoa Estaduagaz. Baiña ETAk Euskalerriaz

egin bear ditu kontuak. Eta arentzat demokrazia, erriaren borondate konkretoa, orain eta emengoa, izan bear dau lege. Erriari utzi bear deutso beronen hibe demokratutetatik Estaduagaz bere arazoa konpontzen. Au onartzen ez dauan eiñean, erriaren kontra jokutzen dau. Ez dau konkretoki (ez igesik egin eztabaida orokorretara) aintzat artzen erriaren gaitasuna (burujabetza) beronen arazoak erabagiteko. ETaren ekintzak erri au ez dala gai eta eldua agertzen dau. Inork esan bear deutso zer egin; here senean ez dagoanez inork beartu bear dau orretara joaten.

Jakiña kanpotiko arazoa eta etxekoa lotuta dagozana. Kanpotiko istillua guztiz konponduko balitz ez litzake etxeko istillu au izango (baiña oraingo pentsakera eta jarrera au berez istillu sortzaillea da). Dana dala, kanpotiko arazoa istorian zear era onetan sortu eta or dagoanez, Euskalerrriak orain bere nortasunaz erabagi bear dau arazo orretaz. Jakiña istoriako egiteak or dirala. Errealidade istoriko orren ondorioak dira oraingo kanpotiko eraso eta Euskalerrri barruan sortutako arazo moltsoa: baiña guzti ori, orain, gure errealitatea konkretoa dogu. Eta Euskalerrriak konpondu egin nai dau, gizalegez, dan moduko errealitate ori.

5. Zelan lagundu? Esan dot asieran bakearen arazoa zabala dala. Alderdi askotara sartzen dira arazoaren sustraiak. Baiña emen matasa orretan, beste alde guztiak inondik be ukatu barruko gai hat argitan jarten lagundu nai izan dot. Talde baten erantzukizunari buruz ekiñaz ez dira besteenak gitxiagotzen. Ezaguntzat emoten ditugu istoria alderdiak, eta gaurko danetariko erasoak. Guzti ori gogoan izanik, ETaren lekua argitu nai izan dot, etikoki eta politikoki (politika ideiak eta ekintzak etikarekin zerikusia dauan eiñean).

Gogoeta au boluntarista izango litzake orretan geratuko balitz. Beste askoren gogoeta eta epaikuntzen ondoan. Egia da badagoala ETak bakarrik egin daiken erreflexioa eta autokritika, eta berak bakarrik artu daiken erabagi etiko eta politikoa. Batez be orretarako idatzi dira aurreko puntuok. Baiña barriro be beste guztiok ikusle utsak izan gaitekez, ea talde orrek istoriaren eragiñez sartu zan zulo orretatik zelan urteten dauan

begitzen. Naita naiezkoa dogu urteten laguntzea: errealidadea ikusten eta erabagiak artzen.

Leenengo ta bein, eten barik etika konkreto bideak baieztuz: erailketa eta gogorkeria konkretoki etikaren kontra dagozala, eta, beraz, personen eskubideekin batera, erria eta erri-arteak galtzen dabezala. Ondorioz, nazionalismo ideia eta errealitatea bera aul-tzen aurreneko lankideak dira, gorago azaldu dan zentzuan.

Olako edo antzeko eritziak emon dira, sarritan, orain arte. Eritzi orreen agerpideekin batera, beste au erakutsi bear deutso erriak talde orri: erria badala gauza bere burua zaintzeko eta aldezteko. Badituala bideak orretarako. Bide orretan, erria erri biurtzea dala leenengo zeregiña, bere izatea garatuz eta gaurko egitezko gizartean onartu azoz edo agertuazoz. Erriaren izateari dagokio ain zuzen be personen eskubideak zaintzea. Erri demokratikua eta eldua persona guztien eskubideen aldezte da. Euskalerriak euskal izatearen eskubideak (euskal izatearen agerpenak, antolamentua eta garapenak) lortzeko bideen jakitun dala erakutsi bear dau. Erakutsi, ez herbaz bakarrik eta urrunerantza begira, pausu konkretoak erabagiz eta egiñez baiño. Ez ETAk baldintzatuta, egin bearreko zuzena dalako baiño. Errealitate positiboak kendu bear deutsoz armak talde oni. Errealitate negatiboak (erasoak, gerra otsak) arnasa emoten deutso, taldearentzat naiko dan zuriketaren itxura.

Erriaren indarra batasunean eta etika jarreran dago. Kanpokoak ezin daikeoe gaur luzaro aurka egin olako indarrari. Euskalerriaren makaltasuna bere barruan dago (ez or bakarrik, baiña or dira indartsu besteak): bere batasun ezean eta etika demokratikuaren defizitean. Euskalerriak alkartuta eta etikoki jokatzeko da arazoa.

Luis Arostegi